



BARREN
TOKIKOM

Eroso kamera aurrean

Felix Conde

urtarrilak
14
larunbata

Hau
da nire
EROSKI!



%25
DOAN
zure erosketa osoan
Deskontu-BALEETAN Itzuliko dizugu

soilik

Hipermerkatua

Eibar

Supermerkatuak

Eibar • Ermua



*Deskontu-baleetako gehieneko zenbatekoa 150€ da, (gehienez 600€-ko erosketa baten truke). Kontsultatu gainerako baldintzak zure saltokian.



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

**ARAMBURU BITXIDENAKO
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:**

1. SARIA

250 €-ko

bonua bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 3.350

Ordezko zbkia.: 3.058

2. SARIA

250 €-ko

bonua bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 1.265

Ordezko zbkia.: 2.038



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

*HHO (2016an eta 2017an jaiotakoak), otsailtik ekainera
hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 16tik 27ra*



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus
943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen bilera urtarrilaren 16an, 18:00etan



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

**Marka guztieta
gurpiletan
deskontuak!**



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Eraburketa: **943 820 697**

Confección: **943 202 214**

943 127 271

14.000 €



TOYOTA AVENSIS 2.0 D4D ADVANCE

Motora: 2.0 cm3 D4D Diesel

Km: 106.000

Egerra: erabilia

4.000 €



OPEL ASTRA 1.7 CDTI ENJOY

Motora: 1.7 cm3 CDTI Diesel

Km: 253.000

Egerra: erabilia

11.000 €



BERLINGO MULTISPACE 1.6 HDI TONIC 18

Motora: 1.6 cm3 CDTI Diesel

Km: 60.000

Egerra: erabilia

13.800 €



OPEL INSIGNIA ST 2.0 CDTI SPORT 160

Motora: 2.0 cm3 CDTI Diesel

Km: 126.000

Egerra: erabilia

14.000 €



VW GOLF 1.6 TDI CR BM BUSINESS

Motora: 1.6 cm3 CDTI Diesel

Km: 90.000

Egerra: erabilia

13.000 €



FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM

Motora: 2.0 cm3 CDTI Diesel

Km: 80.000

Egerra: erabilia



NORA HADI



“Euriarekin ohituta egon beharko lukeen Euskal Herri honi eragin egiten dio eguraldi kaxkarrak. Ez al da ba bitxia, eta era berean, tristea?”

Ezin esan urtea bero hasi dugunik, Garazi! Hau hotza! Eskerrak egunotan egiten ari den euriari esker temperaturak apur bat igo zaizkigula. Euria. Ai! Nire ahizpa deprimituta dago Kanariar uharteetatik bueltatu ginenetik. Eguraldi kaxkarrak triste jartzen duela dio, eta, gainera, ilea erratzaren pare jartzen diola. Exageratu egiten duela esaten diot nik, Garazi, baina, egia da modu batean edo bestean umorea aldatzen zaigula gehienoi, neure burua ere zakuan sartzen baitut.

Euriarekin ohituta egon beharko lukeen Euskal Herri honi eragin egiten dio eguraldi kaxkarrak. Ez al da ba bitxia, eta era berean, tristea?

Zenbat plan baztertuta euriarengatik, zenbat traba gure egunerokotasunean!

Jakina da adin batetik aurrera euriak ez digula graziaz egiten, eta adin batetik aurrera diot ez dudalako ezagutzen euria gogoko ez duen umerik.

Eta galdera hor doa, Garazi: Zein momentutan hartu zioten aurrea gure ileko plantxek, momentua bizi eta disfrutatzeari?

Badakit euskaldunok ez daukagula dantzari trebeen famarik, baina gure zelai berdeak asetuta egon daitezten, has gaitezen euriari bere astinduak ematen uzten, eta erakus dezagun euripean ere dantzan egiten dakigula! Maite ditugu maite eta, gure bazterrak!"



GARAZI AYESTA

“Maite ditugu maite gure bazterrak, baina zeinen erraz nazkatzen garen horrek atxikirik dakarren guztiaz, ezta?”

Zure testua irakurri, eta etxeko epelean harrapatu nauzu, Nora. Ni ere, nolabait, zaparradatik babestu nahian. Egia esango dizut: oraingoan, gogo onez hartu dut euria. Behingoz. Ze, bai, hoztuta bai, baina desertuan bertan baino ia lehorrago hasi dugu urtea gurean ere, Nora. Ez al duzu uste? Egia esan euri falta dela eta ez dela, ardura puntu batekin sumatu dut jendea inguruan (autobusetan, trenetan eta Eroskin). Epel dagoelako gustura gehienak, baina larri ere bai. Hau, gure paraje honetan, ez delako ez, normalena. Klima aldatetaren mamu hura egia ote den ere pentsatu du akaso batek baino gehiagok. Baina esan eta parekoaren aurpegia ikustean, “Ez, ez, hori ez” esan eta listo. Mendizaleak eta eskiatzailak urduri, zerura begira... Eta esango dizut tristezia ematen duela benetan mendi puntak zurituta ikusi beharrean berde-marroixka ikusteak...

Baina, gaur, hasi da zerua bota eta bota. Eta gaur, Eroskin, aldatu da jada txutxumtxuetarako gaia. Joan dira kezkak eta itzali dira alarmak. Inork pentsatu badu muturreraino hanka sartzen ari garela gure planeta honekin eta agian beranduegi dela eta agian aldatuko direla gauzak eta agian poloak urtzearen ipuin horrek baduela errealitatetik istoriotik baino gehiago, gaur, jada galdu du balioa horrek. Gaur, kexek hartu dute leku hori. Ilea kizkurtzeagatik batzuk, hezurretako minagatik besteak eta asperduraren asperduraz beste bat edo beste. Iritsi zaigu euria, nonbait elur izango dena, eta hasi gara marmarka. Pentsatu nahi dut marmar horren azpian geratuko zela, sikiera, ardura horren itzalik. Maite ditugu maite gure bazterrak, baina zeinen erraz nazkatzen garen horrek atxikirik dakarren guztiaz, ezta?



MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria

Aldaketa

ren heriotza ospatu zela, komunismoa ehortzi eta kapitalismoak gaina hartu zueneko. Garaitezin, agortezin. Hitz potoloak dira gero. Merkatuak eta herrialdeak gehitu eta gehitu, erromeria ez dadila eten! Aterabiderik gabeko lasterketa basatia, goranzko kontsumoa baino onartua ez den eskenatokia.

Baina, orain, nora goaz? Gizarte eta ekonomia zatiketa bortitzak elkarbizitarako eta aurrerapenerako oinarri makalak direla jabetzeko atarian gaude? Gure baliabide eta bizitza maila hazten ari diren herrialdeetako biztanleria gazte eta kementsuarekin partekatu behar dugula ohartzeko iritsi zaigu globalizazioa, Europa eskuin muturreko

alderdien mehatxupean dagoen honetan?

Hazkundera aurrerabidearen emari nagusia izan da, zalantzarik ez, pertsonen talentuaren akuilu. Baina jaun goren bihurtuta, maximizazio ekonomikoak kutsatzen du dena, materialismoak gosez akabatzen gaitu, ekologismoak aspaldi antzeman zuen moduan.

Paul Masonen *Postcapitalismo* liburu laudatuak, aktibisten tokian tokiko lana aitortuz, kontakizun orokor baten teorizazioa egiten du, Zero Proiektua deitzen duena lau zutaberen gainean mamituz: karbono isurpenik gabeko sistema energetikoa; finantza sistemaren egonkortzea eta sozializazioa; teknologiaren bidezko ongizatearen hobetzea; eta lan kontzeptuaren eraldaketa, errenta unibertsal bat esleitzen. Hitz potoloak dira gero..

Eguno garai azeleratuotan, Fidel Castroren 60 urteko agintearen balio informatiboa bizpahiru egunetako lerroburuetara mugatu da, albistearen ordezkapen zoroan. Berarekin ote doaz ezintasun ekonomikoak, enbargoak, etsai gorenak eta bestelako mixeriak? Berarekin ote doaz mundu hobetago bat eraikitzeko utopiak?

25 urte ere badira Sobiet Batasuna-

“Hazkundera jaun goren bihurtuta, maximizazio ekonomikoak kutsatzen du dena, materialismoak gosez akabatzen gaitu, ekologismoak aspaldi antzeman zuen moduan”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legeburuaren Argitaratzailea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizababala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:




LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZUZENKETA

Joan asteko alean, Juan Cruz Solen inguruko fitxa oker argitaratu genuen C.D. Elgoibarren gaineko reportajea. Juan Cruz Sol 1947ko irailaren 13an jaio zen, eta gaur egun Valentzian bizi da. Hamasei denboraldiz izan zen Lehen Mailako jokalaria. Bestetik, Lehen Mailan jokatzera iritsi ziren jokalarien zerrendan ez zeuden denak, C.D. Elgoibarrekoentzat esanguratsuenak izan zirenak baizik.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitzik argitaratuko.



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
edo

www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



Premian dauden 53 familiatako 123 umeri banatu dizkie opariak aurten Elgoibarko Gurutze Gorriak

Jostailu bilketa-kanpainan batutako jostailuak abenduaren 23an banatu zituen Elgoibarko Gurutze Gorriak. 53 familiatako umeri banatu dizkieten opariak Elgoibarren, 123 neska-mutili guztira. Horiez gain, baina, Soroluzeko 80 umek ere jaso zituzten opariak. Jostailu berriak ziren batu eta banatu zituzten guztiak, eta kanpainaren "oso balorazio positiboa" egin dute arduradunek. Hori dela-eta, eskerrak eman dizkiete kanpainan lagundu duten guztiei. Pitxintxu, Cristina Estetika, eta Juguettos dendei, Besa, Danobat, DanobatGroup eta Etxe-Tar enpresei, Real Sociedad Fundazioari eta Elgoibarko eta Soroluzeko udalei eman dizkiete eskerrak eta baita kanpainari euren ekarpena egin dioten norbanakoei ere. Kanpaina honen inguruko bideoa ere osatu dute eta www.barren.eus daukazue ikusgai.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartuko da Mendaro

Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak batzar nagusia egingo du larunbatean Larrabetzun, eta bertan, Mendaroko Udalak Mendaro Uemako kide izateko egindako eskaera onartuko dute. Mendaroko Udalak urriko osoko bilkuran onartu zuen eskaera aurkeztea, EH Bilduko bost zinegotzien eta EAJko lau zinegotzien aldeko botoekin. Mendarorekin batera, Errezil, Ataun, Larrabetzu eta Areatza sartuko dira bihar Ueman. Osotara, 82 udal izango dira mankomunitatearen kideak, 240.000 biztanleko multzo euskalduna sortuz.

Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Uema, eta Euskal Herriko herri ezberdinek osatzen dute. Mendaro udalerrri euskalduna da, baina 2011ko azterketa soziolinguistikoen arabera, biztanleen %69,9 dira euskaldunak eta azken urteotan euskararen ezagutzak eta erabilerak behera egin dute. Datu horrekin kezkatuta agertu da Udala, eta ahal den heinean beherako joera irauli nahi du, Mendarok euskararen arnasmune izaten jarrai dezan. Mendarok dituen biztanle kopuruaren arabera, bi udal ordezkari dagozkie Uemaren batzar nagusian.

Gizon bat hil zen martitzenean auto istripuz

Soroluzeko 80 urteko gizon bat hil zen martitzenean 634 errepidetan, Saturixo inguruan gertatu zen istripuan. Auto batek eta kamioi batek aurrez aurre jo zuten, eta gizonazkoa han bertan hil zen. Autoko gidaria zen. Auto berean zihuan emakumeak zauriak izan zituen eta Mendaroko ospitalera eraman zuten. Istripuagatik errepidea itxita izan zuten, eta auto-ilarak sortu ziren.



Eguberrietako zozketen emaitzak

Eguberrien bueltan hainbat zozketa egin dira Elgoibarren eta Mendaron eta hona orain arte batu ditugun zerrenda.

Txankakuaren zozketa

Txankakuak 1.800 euro banatuko ditu oparitan. 500 euroko bi txeke eta 100 euroko zortzi txeke. Honako zenbaki hauen jabeek jasoko dituzte 500 euroko txekeak:

82.550 (Ordezkoa: 07.098)

72.081 (Ordezkoa: 81.141)

100 euroko txekearen irabazleak, berriz, honako hauek dira:

05.495 (Ordezkoa: 80.091)

13.205 (Ordezkoa: 94.649)

16.411 (Ordezkoa: 43.133)

16.998 (Ordezkoa: 00.212)

83.075 (Ordezkoa: 15.752)

01.515 (Ordezkoa: 57.066)

40.518 (Ordezkoa: 30.453)

14.104 (Ordezkoa: 85.351)

Mendaron merkataritza suspertzeko Gabonetako kanpainako saridunak

Herriko merkataritza suspertzeko kanpaina egin du Gabonetan Mendaroko Udalak, eta herrian erosketak egin dituztenen artean herriko hamar establezimendutan gastatzeko 50 euroko hamar erosketa-bono zozketatu dituzte: Kanpainan 21 establezimenduk parte hartu zuten eta saritutako bezeroak hauek izan dira: Alberto Garcia (Ederki), Carmen Fundazuri (J.I. Fernandez Farmazia), Sirar Roiz (Degustacion Mendaro), Maria Axun Iturbe (Irrintzi), Ekain Garcia (Puxika), Josefa Seijas (Nahia), Arantxa Cebrian (Morroskillo), Ibon Kerexeta (Saint Gerons), Iñigo Oria (Euskonatura) eta Jon Larrañaga (Pagoerota).

Marisko otarraren zozketa



Banatu dute preso eta iheslarien eskubideen alde zozketatutako marisko otarra. 00784 zenbakiaren jabeek jaso dute saria, Itziar Ibaberen eskutik.

C.D. Elgoibarrek zozketatutako otarren irabazleak



C.D. Elgoibarrek bi otarra zozketatu ditu: Lehen saria Unai Alberdik eskuratu du 22059 zenbakiarekin, eta Angel Sanzek bigarrena 12454 zenbakiarekin. Hilabete honetako bazkide leialaren irabazlea, berriz, Pedro Barrenetxea izan da eta Txarriduna jate-txean bi lagunentzako afaria irabazi du.

Arno guraso elkartearen zozketa


Mendaroko Arno guraso elkarteak Gabonetako otarra zozketatu du eta 6513 zenbakia izan da irabazlea.

Mendebaldeko Sahararako janari eta konpresa bilketa

Mendebaldeko Sahara bidaltzeko janari bilketa hasi dute. Sahararen aldeko hamahirugarren karabana izango da eta ekimen honen sustatzaileak dira Saharar Iargi Gorria eta Emakume Sahararren Nazio Batasuna. Elgoibarren, Eroski bietan eta Netton jarriko dituzte otarrak, eta hilabete osoz iraungo du kanpainak. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, atun eta sardina latak, olioak eta konpresak eskatu dituzte. Sahararren egoera "zaila" dela gogorarazi dute, eta premia "handia" dela nabarmendu.

Zigor Bengoetxea eta Ibon Villanueva garaile, musean

Zigor Bengoetxea eta Ibon Villanuevak irabazi zuten abenduaren 30ean jokatu zen Euskal Herriko IX. Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa, eta horrenbestez, Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira. Ibarren jokatuko dute Gipuzkoako txapelketa otsailaren 25ean, eta irabaziz gero, martxoaren 25ean jokatuko lukete final handia, Anoetan. Txapelketa honetan 50.000 euro baino gehiago banatzen dituzte. Txapeldunek, esaterako, 3.000 euro eta lau lagunentzako Karibera bidaia jasoko dute sarizat.



Felix
Conde

Elgoibar, 21 urte



'Gu ta Gutarrak' saioko partaidea



ETB1eko 'Gu ta Gutarrak' saioko lehiakideetako bat da Felix Conde (Elgoibar, 1996). Kasualitatez iritsi zen programara, baina behin barruan egonda, ahalik eta gehien irautea nahiko luke. Momentuz, bigarren fasera iritsi da. Fase honetan ere umorea, haserrea, lis-karrak eta amodio kontuak nahi beste izango direla aurreratu du Condek.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola iritsi zinen ETB1eko 'Gu ta Gutarrak' realityra?

Kasualitatez iritsi nintzen. *Gu ta gutarrak* saiokoak lehiakide bila ibiltzen dira sare sozialetan, eta nire profila gustatu zitzaienen, itxuraz. Mezu bat idatzi zidaten, baina ez nien kasurik egin. Handik pare bat egunetara pintxopotean nenbilela koadrilako lagun bati erakutsi nion ETBkoek bidali zidaten mezua, eta berak 'konfirmatu' botoiari eman zion. Orduan hasi zitzaizkidan telebistatik deika. Hasieran ez nituen deiak erantzuten, baina azkenean deia hartu nuen. Nerea Alias ETBko aurkezlearekin hitz egin nuen, eta castinga egitera joatea erabaki nuen.

◆ Nolakoa izan zen casting-a?

Sekulako ezustekoa hartu nuen. Uste nuen hiru-lau lagunekin elkarriketa bat edo egin beharko nuela, baina Miramnera iritsi nintzenean esan zidaten castinga zuzenean egin behar nuela. Beste bi lehiakide zeuden han ni bezala, eta haiek

"Oso arraroa da norbere burua telebistaz ikustea, baina ari naiz ohitzen"

lasai ikusten nituen.

Ni, ordea, oso urduri nengoen, ez nekien zer egin, baina behin han egonda beste bi lehiakideak

baino hobeto egin behar nuela esan nion nire buruari; ni aukeratu behar nindutela. Beste bi lehiakideak lagunak ziren, eta dantza bat prestatu zutela entzun nien. Are eta urduriago jarri nintzen orduan, nik ez neukalako ezer prestatuta, eta ridikuloa egin behar nuela ikusten nuelako. Une horretan nire burua aurkezteko bertso bat prestatzea bururatu zitzaidan. Ez naiz oso abila bertsotan, baina prestatu nuen zer-bait. Nerea Aliasi galdetu zioten ea berak esan zidan bertsoa prestatzeko, eta ikusi zutenean nire iniziatiba izan zela, reality-rako aukeratu ninduten. Zuzenean abestu aurretik aukeratu nengoen. Argi neukan telebistan agertu eta ridikuloa egin behar banuen, ondo egin behar nuela!

♦ **'Mutil tontoa naiz, ta nahi nuke neska lista' abestu zenuen aurkezpeneko bertsoan. Aurkitu al duzu?**

Horretan gabilta! Saioan parte hartzen dihardugun *gutarrak* elkar ezagutzen ari gara, eta sortzen dira harremanak. Joko apur bat eman behar da!

♦ **Zareten modukoak agertzen zarete ala aktore lanak egiten dituzue?**

Gidoilariak ditugu eta kasu gehienetan eurek bideratzen dituzte gure elkarriketak. Ni saiatzen naiz naizen bezalakoa agertzen, baina ez da erraza. Askotan paper bat interpretatzen dugu. Platoan gehiago inprobisatzen dugu. Han ez ditugu erredaktoreak aldamenen izaten, eta gutxiago kontrolatzen gaituzte. Baina aterpetxean kamarak izaten ditugu aurrean ia uneoro, eta kontrolatuta egoten gara. Atsedean uneak ere izaten ditugu, baina tarte horietan ere zaintzen gaituzte eta justu une horietan liskarren bat gertatzen bada, edo norbait negarrez hasten bada, kameralariak esnatu ere egiten dituzte, une horiek grabatzeko. Liskarrak beretakoak izaten dira gehienetan. Azken batean reality bat da, eta audientziak agintzen du.

♦ **Nola egiten dituzue grabaketak?**

Ostegun eta ostiraletan platoko saioak grabatzen ditugu Miramonen, egun bakoitzean bi programa. Eta hilean bi asteburu aterpetxean pasatzen ditugu hango grabazioak egiten. Hasieran arraroa egiten zitzaidan kamera aurrean agertzea, baina orain ohitu naiz. Askotan ahaztu ere egiten zait kameralariak dena grabatzen ibiltzen direla.

♦ **Espero zenuen bezalakoa al da telebista?**

Ez, egia esanda harritu egin nau telebistak. Espektatiba handirik gabe iritsi nintzen programara, baina behin barruan egonda ahalik eta gehien irautea da nire asmoa. Momentuz bigarren faserako hartu naute, eta hasi gara grabaketak egiten. ETBekin kontratua daukat, eta ezin dut aurreratu emititu gabeko konturik, baina esan dezaket bigarren fase honetan joku handia emango duten pertsoniak sartuko direla. Barre asko egiteko aukera izango da bigarren fasean, eta liskarrak ere ez da faltako.

♦ **Arraroa egiten al zaizu zure burua telebistan ikustea?**

Bai, oso arraroa da norbere burua telebistaz ikustea, baina ari naiz ohitzen. Lagunekin ikusten dut programa lokalean. Esaten didate balorea behar dela hor irteke! Beti aritzen zaizkit galdezka zergatik nominatzen dudana bata edo bestea... Ondo pasatzen dugu.

♦ **Eta etxekoek nola ikusten zaituzte?**

Egia esan ez dut saio bat bera ere etxekoekin ikusi. Ez daukat denbora askorik etxekoekin gai honi buruz hitz egiteko. Aitak galdetzen dit batzuetan hango neska kontuengatik, baina ez dugu asko hitz egiten.

♦ **Igarri duzu aldaketarik zure bizitzan 'Gu ta Gutarrak' saioan irteten zarenekit?**

Pixkat bai. Sare sozialetan gazte askok jarraitzen naute, jendeak kalean ezagutzen nau, autografoak ere eskatu

izan dizkidate eta jendea gerturatzen zait nirekin argazkiak atera nahi dituela esanez. Bakarrik nagoenean agian oharkabean pasatzen naiz, baina taldean gaudenean jendeak ezagutzen gaitu. ETB ez da Telecinco, baina jende askok ikusten du *Gu ta Gutarrak*, eta Elgoibarren jarraitzaile asko ditu programak.

♦ **'Goazen gudari danok' dokumentalean eta La Sextaren 10. urteurrenoko programa berezian ere ikusi zintugun. Nondik datorkizu telebistarako zaletasuna?**

Dokumentalerako figuranteak behar zirela irakurri nuen, eta izena eman nuen. Polita izan zen, baina azkenean ordu asko eta diru gutxi! Reketek papera egin nuen, eta hor geratuko da betirako dokumentala. Esperientzia polita izan zen. La Sextakoa, aldiz, fabore bezala eskatu zidaten. Pilotari bat behar zutela programan irteke, eta baietz esan nuen. Nik ez diot ezeri beldurrik eta lotsa handirik ere ez dudanez, agertu nintzen han ere!

♦ **Pilotaria eta pilota entrenatzailea ere bazara. Elgoibarren ba al dago pilotarako zaletasunik?**

Ez gehiegi, baina orain gaztetxoak entrenatzen ditut, eta badaude pilotari onak gaztetxoaren artean. Ondo egongo litzateke hemendik urte batzuetara frontoi berri bat egitea Elgoibarren. Ez dut esaten Eibarko Astelena bat behar dugunik, baina nire ustez Elgoibar bezalako herri batek merezi du frontoi itxuroso bat.

♦ **IMHn goi mailako mekanizazio moduluak egiten diharduzu. Non ikusten duzu etorkizunean zure burua, lantegi batean ala telebistan?**

Ez dakit, momentuan datorrenari helduko diot. Ikasketekin jarraituko dut, baina telebistak ematen dizkidan aukerak ez ditut baztertuko. *Gu ta Gutarrak* saiotik proiektu berriak ateratzeko asmoa dute. Oraindik ez digute ezer zehaztu, baina esan digute beste proiekturen baterako gure kolaborazioa beharko dutela, eta ni prest agertu naiz. Agian *Conquis* saiora joateko aukeraren bat ere izango dugu. Gustatzen zait telebista.

Erregeen desfilea

Elgoibar





Mendaro



Ospakizunen urtea hasi du C.D. Elgoibarrek

Lagunez inguratuta hasi ditu C.D. Elgoibarrek mendeurrenako ekitaldiak. Martitzenean egin zuten 100. urtemugaren harira urte osorako antolatu dituzten ekintzen aurkezpena. Galako ekitaldia izan zen, eta Herriko Antzokia bete egin zen. C.D. Elgoibarren iragana eta oraina uztartu zituzten, eta agintariekin batera, klubari lotutako izen handiko lagunek parte hartu zuten. Zuhaitz Gurrutxaga futbol jokalarri profesionala izandakoak aurkeztu zuten mahai-inguruak umore ukitua ere jarri zion ekitaldiari eta momentu hunkigarriak ere izan ziren, Josetxo Arakistaini, "Elgoibarrek sekula eman duen atezain onenari", egindako omenaldia kasurako. C.D. Elgoibarren izenean, oroigarri bat jaso zuten Arakistainek, Julen Lopetegui Espainiako selekzioko hautatzaile eta atezain profesional izandakoaren eskutik. Era berean, Ricardo Garate Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko presidentea zena ere omendu zuten ekitaldian. Iazko uztailen hil zen Garate, bihotzekoak jota.

- AINARA ARGOITIA -



Agintariak, gonbidatuak eta C.D. Elgoibarreko zuzendaritzakideak eta mendeurrenako batzordeko kideak, ekitaldi bukaeran.

Ehun urte ez dira egunero betetzen, eta ospatzeko, urte osorako egitaraua antolatu du C.D. Elgoibarrek. Hileko bi-hiru ekintza antolatu dituzte, eta martitzenean eman zioten hasiera programari Herriko Antzokian egin zuten ekitaldian. Jende ezagun ugari batu zen antzokira: agintariak, C.D. Elgoibarren familia handia osatu duten lagunak eta baita inguruko herrietako klubetako hainbat ordezkari ere. Agintarien esker-on berbekin hasi zuten saioa. Antton Iranzo C.D. Elgoibarreko presidentea, Joseba Ibarburu Realeko ordezkariak, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea, Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Saileko foru-diputatuak eta Ane Beitia Elgoibarko alkateak hartu zuten hitza eta esker-on berbak izan zituzten Klubarentzat. C.D. Elgoibarrek futbolari ez

ezik Elgoibar herriari eta herriko kirol eskaintzari egindako ekarpena eta Elgoibarko zaleek erakutsitako jarrera goratu zituzten Denis Itxaso eta Ane Beitia, eta kirolaren bidez herriko neska-mutilak baloreetan hezteko agertu duten konpromisoa ere eskertu zioten klubari. Klubean "burubelarri" eta borondatez lanean jardun dutenen egitekoa zein garrantzitsua izan den nabarmendu zuten gainerako mahaikideek, eta C.D. Elgoibarrek 100 urtez iraun ahal izateko eginahalak egin dituzten guztien lana txalotu eta haien guztien konpromisoa nabarmendu zituzten. Iñaki Konde C.D. Elgoibarreko Mendeurrenako Batzordeko kideak itxi zuten ekitaldiaren lehen partea, anekdota batekin. Denis Itxaso arbitro lanetan ibilia zela aitatu zuten Kondek, eta foru-diputatuaren beraren berbak erabilita, Mintxetako zaleen jarrera "eredugarria" go-



Itziar Gurrutxaga, Jose Mari Arakistain, Josetxo Arakistain, Jagoba Arrasate eta Markel Bergara Zuhaitz Gurrutxagak esandakoei adi.

ratu zuen. "Beti izan dira oso maitatuak arbitroen artean", esan zuen, Denis Itxasoren hitzetan oinarrituta.

Agintarien saioaren ondoren, Zuhaitz Gurrutxagari eman zioten hitza aurkezleek, Iñaki Kondek eta Garazi Ayestak. Gurrutxagak zuzendu zuen mahai-ingurua, eta bost gonbidatu batu zituzten mahaira; bost izen handi; C.D. Elgoibarreko lau jokalarari ohi eta entrenatzaile gisa aritutako bat: Josetxo Arakistain, Jose Mari Arakistain, Itziar Gurrutxaga, Markel Bergara eta Jagoba Arrasate. Grazia handiz gidatu zuen solasaldia Zuhaitz Gurrutxagak, eta haren maila berean jardun zuten solaskideek ere. Gazteago zireneko oroitzapenak aletu zituzten, umoretik beti, eta Herriko Antzokiak txaloka erantzun zien.

JOSETXO ARAKISTAINI GORAZARRE

Mahai-ingurua ixteko, Josetxo Arakistaini tentetzeko eskatu zioten aurkezleek, eta ekitaldiko une hunkigarrienetako bat bizi izan zen. Ezustean harrapatu zuen tentetzeko egindako eskaerak eta are ezusteko handiagoa hartu zuen oholtzara Julen Lopetegui Espainiako selekzioko hautatzailea igoarazi zutenean. Aspalditik ezagutzen dute elkar Lopetegui eta Arakistainek, eta harreman estua dutela garbi gelditu zen oholtzan elkarri eman zioten besarkada ikusita. Lopetegui oroigarri bat eman zion Arakistaini C.D. Elgoibarren izenean, eta eskerrak ere eman zizkion gaztetan emandako bultzadagatik: "Gure etxera, Asteasura, etorri zen Josetxo, 18 urte neuzkanean. Gure ama konbentzitzera etorri zen, Madrilerara joaten uzteko konbentzitzera. Erabaki hark bizitza aldatzeko aukera eman zidan, eta beti eskertuko diot. Urteetan harremana mantendu izan dugu, gainera, eta errespetu eta maitasun handia diot".

Ekitaldi honi buruzko erretratu gehiago ikusteko:
www.barren.eus

Antton Iranzo C.D. Elgoibarreko presidentea, Julen Lopetegui Espainiako selekzioko hautatzailea eta Josetxo Arakistain.



MENDEURRENEKO OSPAKIZUNAK

URTARRILA

◆ **21:** Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak C.D. Elgoibarren mendeurrerako propio sortu duen zigilu markaren aurkezpena egingo dute zigilu erakusketaren barruan.

OTSAILA

◆ **11:** Hildako C.D. Elgoibarrekoen aldeko meza parrokiari. Parrokiako abesbatzak parte hartuko du ekitaldian.

◆ **12:** Mendeurreneko martxa aurkeztuko dute Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertuan. German Meabebasterretxeak idatzi du letra, eta Txomin Mujikak sortu du doinua. Kale Kantariak taldekoek eta Parrokiako abesbatzak parte hartuko dute ekitaldian.

MARTXOA

◆ **3:** 100 urte beteko dira egun honetan C.D. Elgoibar sortu zutela. Club Deportivo plazan izenaren baitan, futbol eskolan izena emandako neska-mutilen futbol partidak jokatu dira Kalegoen plazan. Eta Aterri musika taldearen kontzertua.

◆ **24:** Teatro Borobilek *Jokoz kanpo* antzezlan eskainiko du.

APIRILA

◆ **1:** Bartzelona-Real Espainiako Liga txapelketako partida ikustera joateko bi sarrera, bidaia eta ostalua zozketatuko dituzte.

MAIATZA

◆ **1-31:** Argazki erakusketa.

◆ **6:** Lehenengo Mailan jokatu duten C.D. Elgoibarreko eta Elgoibarko jokalariei omenaldia.

- C.D. Elgoibar eta Realeko beteteranoen arteko futbol partida.

- C.D. Elgoibarko jokalarari ohi, entrenatzaile ohi, zuzendaritzakide ohi, eta bazkide eta zaleen bazkaria.

EKAINA

◆ **10:** Danborrada. C.D. Elgoibarren mendeurrenaren oroitzapenez.

◆ Gipuzkoako Futbol Federazioaren batzar nagusia.

UZTAILA

◆ **8:** C.D. Elgoibarko presidente izandakoei omenaldia.

◆ C.D. Elgoibar eta Realaren arteko partida.

ABUZTUA

◆ **23:** C.D. Elgoibarrek botako du San Bartolome jaiei hasiera emateko txupinazoa.

IRAILA

◆ **16:** Mintxeta Atletismo Taldeak antolatutako gau krosa.

URRIA

◆ C.D. Elgoibarko beteteranoen futbol partida.

◆ Lehenengo Mailan jokatzera iritsi diren Elgoibarko jokalariei omenaldia.

AZAROA

◆ C.D. Elgoibarko eta Eibarko beteteranoen arteko futbol partida

ABENDUA

◆ C.D. Elgoibarren historiari buruzko liburuaren aurkezpena. Koldo Lizarralde ari da liburu idazten

◆ Mendeurreneko itxiera ekitaldia.

* Ordu-tegiak eta lekuak lotu ahala jakinaraziko dituzte.

C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskainiko diote aurten San Anton jaietako zigilu erakusketa

San Anton Eguna izango da datorren martitzenean, urtarrilaren 17an, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatatu dituzte datozen egunetarako. Ohi bezala, Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak zigilu erakusketa prestatu du San Anton jaietarako. Urtero herriko elkarteren bat izaten da protagonista, eta aurten C.D. Elgoibarren mendeurrena izango da. Klubak 100 urte egingo ditu martxoan, eta zigilu berezia eskainiko diote. Bihar inauguratuko dute erakusketa, 11:00etan, eta 14:00ak arte Correos enpresak Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko du bulegoa.

Aurten 88 bat zigilu bilduma jarriko dituzte ikusgai. Bilduma jabeek urtarrilaren 21ean emango dizkiete oroigarriak, 13:00etatik aurrera. Ekitaldi horretan



laz San Bartolome parrokiari eskaini zioten.

C.D. Elgoibarko arduradunak ere izango dira.

San Anton Eguna

Martitzenean hainbat ekitaldi izango dira Elgoibarren, San Anton Eguna ospatzeko. 11:00etan meza nagusia egingo da eta parrokiako abes-

batzak hartuko du parte. Emudafek antolatuta, bestalde, kontzertua egongo da 12:30ean Herriko Antzokian. Era berean, Kalegoen plazan umeentzako parkea jarriko dute goizez eta arratsaldez (euria egiten badu, Sigman), eta 17:30ean erraldoi eta buruhandien kaletira izango da.

Mendaroko Udalak banatu ditu ipuin eta postal lehiaketako sariak



Abenduaren 24an jakinarazi zituen Mendaroko Udalak Gabonetako ipuin eta postal lehiaketako irabazleen izenak. Gabonetako ipuin lehiaketan 41 mendarorrek eta 43 elgoibartarrek parte hartu zuten, eta hauek izan dira saridunak: Mainer Gallastegi (*Olentzero maitea*), Aitor Urteaga (*Ipuinen borroka*), Aintzane Urbieta (*Periko*), Ane Rodriguez (*Sagu eta Saga saguen abenturak*). Postal lehiaketan, berriz honako hauen lanak aukeratu dituzte: Miren Tejada, Haizea Aranbarri eta Añes Galarraga. Argazkiak: www.barren.eus.

'Katmandu, un espejo en el cielo filma' gaur zortzi, Kultur Etxean

Haizea emakume taldeak bideo forum saioa antolatu du datorren barriaxurako. *Katmandú, un espejo en el cielo* filma landuko dute oraingoan. Iciar Bollain zinegileak zuzendutako filma da. Laia, irakasle kataluniarra Katmandura joango da, eta hango irakaskuntza sistema aldatzeko ahalegina egingo du. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa, eta Kultur Etxean izango da. 21:30ean kafea hartuko dute, eta 22:00etan hasiko da filma.



Agortu egin dira 'Go!azen' ikuskizunaren bi saioetarako sarrerak

Go!azen antzerki musikalaren bi saio eskainiko ditu Pausoka Teatroak, domekan, Elgoibarko Herriko Antzokian, eta bi saioetarako sarrerak agortu egin dira. Go!azen antzezlaren saio bat eskaini behar zuten hasieran Elgoibarren, baina sarreraren aurre-salmentak izan zuten arrakasta ikusita, bigarren saio bat ere antolatatu zuten Elgoibarko Udalak. Hortaz, 16:30erako iragarrita zegoen lehen emanaldiaz gain, 12:30ean eskainiko



dute bigarren saioa. Gaztekoen arteko maitasuna, umorea eta abenturak izango dira protagonista, abestiekin eta dantzekin apainduta.

Urtarrilaren 17a izango da jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna

San Anton Eguna, urtarrilaren 17a, izango da Elgojaitza taldearen jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna. Gabonetako opraldian jende askok bisitatu du jaiotza, baina oraindik ikusteke daudenek martitzenera arteko epea izango dute. Ordutegia ondorengoak izango da: Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburu eta jai egunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

Musikeneko perkusio taldeak kontzertua eskainiko du martitzenean Herriko Antzokian

Emudafek antolatuta, Musikeneko perkusio taldearen kontzertua izango da martitzenean, San Anton Egunean, Herriko Antzokian. Antolatzailerek esan dute, kalitate handiko taldea da hau, eta adin desberdinetako publikoarentzako moduko saioa izango dela aurreratu dute. Musikeneko perkusio taldean Naia Menbrillera elgoibartarrak ere hartzen du parte. Kontzertua 12:30ean hasiko da.



'Desoxirribonukleiko' antzezlana taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian

Desoxirribonukleikoa genetika-laborategi batean gertatzen den komedia zientifiko musikala da. Sekretupean, euskal genoma ikertzen ari dira bertan. DNA eraldaketaren bitartez, Beñarda Etxepare sortu berri dute, lehen euskal super emakumea. Kazetari misteriotsu baten bisitak hankaz gora jarriko ditu ikerketa bera eta baita zientzialarien arteko harremanak ere. Nahaste-borraste korapilotsuen ondorioz, egia eta gezurraren arteko muga desagertuko da.

Komedia honek umorez jorratuko du zientzia eta kantuz taularatuko ditu giza-harremanak. Esketx bidez, zientzia-alorrek parodiatuko dituzte, eta, antzerki musikalaren bidez, klonatutako pertsona, mediku, zientzialari eta beste zenbait gezurtiren arteko harreman eta gaizkiulertzeak garatuko dira.

Cristian Matias Levis argentinarra da Haundiko entrenatzaile berria

Haundiko entrenatzaile berria aurkeztu zuen C.D. Elgoibarrek urte hasieran. Cristian Matias Levis (Mar de Plata, Argentina) izango da aurrerantzean Haundi taldeko entrenatzailea. Kirol taldeko arduradunen berbetan "ondo" ezagutzen ditu C.D. Elgoibarren barne funtzionamendua eta egungo zuzendaritzaren filosofia, besteak beste zortzi urte daramatzalako klubean lanean. Abendu amaieran kargutik kendu zuten Iker Dorronsoro ordezkatu du Cristian Matiasak.

C.D. Elgoibarren Futbol Eskolan dabilzan neskek lagunarteko partida jokatu zuten, joan den abenduaren 27an, Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka, Mintxetan. Kirol Eskolan ehun umek baino gehiagok eman dute izena denboraldi honetan, eta horietako hamahiru neskek dira. Kopuru "polita" osatu dutela ikusita, lagunarteko partida antolatu zuen eurentzat C.D. Elgoibarrek.



June Loidik eta Maria Balzategik brontzezko domina eskuratu dute euskal selekzioarekin

Autonomi Erkidegoetako selekzioen arteko Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatu dute hil hasieran, Blanes-en (Katalunia, Espainia). Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeko bost jokalarik hartu dute parte adin tarte desberdinetako euskal selekzioetan: Eneko Rubio, Iñigo Elustondo, Asier Urain, June Loidi eta Maria Balzategik. Donostiako Bera-Bera taldean jokatzen duen Nerea Lizarraga elgoibartarrak ere jokatu du txapelketa, kadete nesken mailako selekzioarekin. Emaitzarik onenak jubenil mailako euskal selekzioan jokatu zuten June Loidik eta Maria Balzategik lortu zituzten, hirugarren sailkatzea lortuta.



Lagun Taldea txirrindulari taldeak Mintxetako sarreran izango du lokala



Mintxeta kirol guneko sarreran 75 metro koadroko lokal berri bat egiten ari da Elgoibarko Udala. Orain arte Aita Agirre eraikinean zegoen Lagun Taldea txirrindulari elkartearen egoitza berria izango da lanak bukatzen dituztenean. Hiru hilabeteko epean bukatzea aurreikusten dute Udal arduradunek. Txirrindularitza elkarteak bizikletak gordetzeko eta konpontzeko tailer moduan erabili ahal izango du espazio hori. Bulego bat, komuna eta garbiketarako gunea ere izango ditu. Elgoibarko Udalak 59.740,53 euro (BEZ-a barne) bideratu ditu lanotarako.

Mugertza krosa aurkeztuko dute eguaztenean

Juan Muguerza Nazioarteko 74. Krosa abenduaren 22an jokatu dute Mintxetan, eta eguaztenean, hilaren 18an, egingo dute krosaren aurkezpena Elgoibarko udaletxeko areto nagusian. Era berean, argazki lehiaketa antolatu du Mintxetako, Tantaka tabernaren laguntzarekin. 2017ko otsailaren 17ra arte entregatu ahal izango dira krosari buruzko argazkiak. Lehiaketaren oinarriak eta informazio osoagoa *mintxeta.com* webgunean aurkituko duzue.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Real Union 1 (Oho. erreg.)
Segura 2 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – Urola 3 (Oho. jub.)
Beasain 2 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
Elgoibar 2 – Internacional 3 (Inf. 1. maila.)
Real Union 5 – Elgoibar 1 (Infantil Txiki)

ESKU PILOTA

San Anton txapelketa
Aurrekoetxea / Artola 11 - Elola / M. Garmendia 22 (promesak)
Mitxelena / Hernandez 11 - Espinal / Ceceaga 22 (Seniorrak)

ARETO FUTBOLA

Sala Quinto 4 – Concepto Egile 4 (Nazional B)
Arizmendi Torrebaso 5 – Debabarrena 3 (kadeteak)

SAKIBALOA

Viento Sur 60 – Bosteko Iluari 52
(Gipuzkoako 2. maila)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14
10:30 Elgoibar – Ilintxa (Ale. errendimendua)
10:30 Arrasate – Urola (Ale. errendimendua)
11:45 Amaikak Bat – Aloña Mendi (Ale. errendimendua)
11:45 Elgoibar – Eibar (Ale. errendimendua)
18:00 Elgoibar – Anaitasuna (Oho. jub.)

ESKUBALOA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 14
10:00 Modeltek – Eibar C (Infantil nesk.)
11:15 Pneumax – Aloña Mendi A (Inf. mut.)
12:45 Murgil – Ereintza (Inf. mut.)
16:00 Deca – Corazonistas (Inf. mut.)
17:45 Salento – Haritza Eibar (Inf. mut.)
19:30 Alcora Forging Group – Usurbil (Senior gizonak)
Domekia, 15
10:00 Urkunde – Usurbil (Kadete mut.)
11:30 Beristain – Usurbil (Senior giz.)
13:00 Bankoa – Caribe (Kadete mut.)

ESKU PILOTA (SAN ANTON TXAPELKETA)

Barixakua, 13
22:00 Agirreamalloa/Ibarloza - Zabala/Zubeldia (promesak)
23:00 Alberdi/Arandia - Salaberria/Aranguren (Seniorrak)

San Anton Pilota Txapelketako finalerdiak, gaur

Joan zen urtarrilaren 7an jokatu zituzten San Anton Pilota Txapelketako lehen finalerdiak Ikastolako frontoian (emaitzak eskuineko zutabearen), eta gaur, hilak, 13, jokatu dituzte bigarren finalerdiak, 22:00etatik aurrera, Ikastolako Frontoian. Promesa mailan, Agirreamallok eta Ibarlozak osatutako bikoteak Zabalarren eta Zubeldiaren aurka jokatu dute. Senior mailan, berriz, Alberdik eta Arandiak Salaberriaren eta Arangurenaren aurka jokatu dute. Finala urtarrilaren 20an jokatu da.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Interna ere bai.
☎ 602 193 095/612 216 458

Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.
☎ 686 077 316

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke, asteburuetan.
☎ 651 156 456

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 681 065 683

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.
☎ 635 005 536

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. Astelehenetik ostegunera gauzez lan egiteko prest.
☎ 651 156 456

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 680 808 125

Tabernan, sukalde laguntzaile edo adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 616 328 060

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 631 562 461

Adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest nago. Arratsaldean.
☎ 648 039 187

Pertsona euskalduna adinekoak zaintzeko prest.
☎ 617 571 210

Informatika eskolak ematen ditut.
☎ 680 944 294

Edozein lan egiteko prest nago: umeak edo adinekoak zaindu, etxeak, portalak, elkarteak, tabernak garbitu... Sukalde laguntzaile, zerbitzari... Garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. Ge-

riatria ikasketak ditut eta elikagaiak manipulatzen ditut titulu ere bai.
☎ 616 441 825

Lanerako prest nago, orduka.
☎ 622 162 798

Eskaintzak

Asteburuetan lan egiteko pizza banatzailea behar da. Motorrerako gidabaimena beharrezkoa.
☎ 943 740 196

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxe polita alokatzen da, Mendaron. Erdigunean, udaletxe alboan. Hiru logela, bi komun, berogailu zentrala...
☎ 660 042 159 (arratsaldean deitu)

Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 637 966 749 / 651 156 456

Pisua alokatzen da, altzariekin. Bi logela, egongela, handia, terraza, ganbara, eguzkitsua eta igogailuarekin.
☎ 669 598 769

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigu-

nean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia.
☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 622 162 798

GARAJEAK.....
Garajea itxia alokatzen dut Jausoro plazan. ☎ 647 216 314

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin. ☎ 609 951 243

Garaje itxia alokatzen dut Basarten. ☎ 943 531 131

BESTELAKOAK.....
Ohe artikulatu indibiduala salgai. Prezioa adosteko prest nago.
☎ 689 299 702

Hiru hilabeteko katakumeak oparitzen ditut.
☎ 646 723 911

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.
Iragarkari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Espero ez zen obra bat ordaintzeko dirua jartzea erabaki genuen otsailean gure komunitatean. Bizilagunetako batek hiru epetan ordaindu zuen zegokion kopurua. Hirugarren ordainketa iazko azaroan egin zuen, eta abenduan etxea saldu zuen. Duela egun batzuk egin genuen batzarrean, obra horiek ez egitea erabaki genuen, eta ondorioz, jarritako diru hori bizilagunei itzultzea. Jakin nahiko nuke, etxea saldu duen horri dagoen dirua edo jabe berriari.

Komunitateko kontuan egindako derramak etxe jabeari dagozkio, urteko kontuak onartzen direnean jabea denari alegia. Beraz, etxe jabe berri horri dagokio diru hori jasotzea. Era berean, kontuan saldoa negatiboan balego ere, etxe jabe horri tokatuko litzaiokoe erantzutea.

Komunitateko kontuan dirua sartzen den unetik diru hori komunitatearena da, eta beraz, inongo bizilagunek ezingo luke jarritako dirua erreuperatu, jabeakideen batzarrean dirua itzultzea onartu ezean.

AHOLKUA: Kontuan izan behar da komunitatearen diru-kontuak komunitatearenak direla eta diru hori jabeakideen batzarrean onespenez bakarrik banatu ahal izango dela, jabeakideen batzarra delako diru horren gaineko eskumena daukan bakarra. Beraz, aurreikusitako obrak egin ez izanak ez du behartzen komunitatea derrama itzultzea.

ROSA M^a PINTADO: *Etaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*






Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Lucia**, 2 urte egin dituzulako. Muxu pila-pila etxekoen, eta, bereziki Alex eta Mikelen partez.



Zorionak, **Telmo!** 7 urte handi etxeko pilotariak! Muxu eta besarkada erraldoia, bereziki arrea eta lehengusuen partez.



Zorionak, **Ibon!** 7 urte! Muxu handi bat Ander, Mikel eta Xabiren partez.




Zorionak gure etxeko txef haundixari! Muxu haundi bat, **Elur!**



Zorionak, **Iker**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Muxu asko familiakoen eta bereziki Landerren partez.



Zorionak, **Manex**, 9 urte ez dira egunero betetzen eta! Ondo pasa biharko eguna. Patxo bat etxekoen partez.



Zorionak, **Nere eta aittita Paulo**, hilaren 15ean eta 30ean 6 eta 83 urte egingo dituzuelako. Muxu bana. Etxekoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

BASIC

BETAURREKO PROGRESIBOAK

197€

Uzuri
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

Konsumitzailearen konpromisoa. Erabakiak argi eta ongi azalduz.

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

17 MARTITZENA

10:30-13:30 / 17:30-20:30 Jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna. Parrokiako lokalean.

18 EGUAZTENA

12:30 Juan Mugertza Krosaren aurkezpena, udaletxean.

20:00 Bilera irekia. Podemos Elgoibar Ahal Dugu alderdi politikoaren bilera irekia, Kultur Etxean.

20 BARIXAKUA

21:30 Bideo forum: *Katmandu, un espejo en el cielo*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

SAN ANTON JAIK

13 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: 'Desoxirribonukleiko', Herriko Antzokian.

14 ZAPATUA

12:00 Zigilu Erakusketa. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

15 DOMEKA

16:30 Antzerki musikala: *Go!azen*. Pausoka Produzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

17, MARTITZENA

11:00 Meza Nagusia. San Bartolome parrokiako abesbatzak hartuko du parte.

11:30-14:00 eta 16:30-19:30 Umeentzako parkea, Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan. Euria eginez gero, Sigman.

12:30 San Anton kontzertua, Herriko Antzokian. Musike-neko perkusio taldea. Emudafek antolatuta.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, dultzaineroekin.

21 ZAPATUA

11:00 Filatelia Elkarteetako Euskal Federazioaren lehen asanblada. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskainitako filatelia erakusketako kolaboratzaileei opari-banaketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.



ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko dizugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gordetzeko eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R R D I A K	09:00 - 22:00	20:00 - 22:00	- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
	13 Barixakua ETXEBERRIA	* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:	- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
	14 Zapatua FERNANDEZ	BARRENETXEA (Elgoibar)	- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384
	Goizez: BARRENETXEA	Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277	
	15 Domeka FERNANDEZ	22:00 - 09:00	
	16 Astelehena YUDEGO	MANDIOLA (Eibar)	
	17 Martitena ORUESAGASTI *	San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533	
	18 Eguaztena BARRENETXEA		
	19 Eguena IBAÑEZ *		
	20 Barixakua GARITAONANDIA		

'Villaviciosa de al lado'

14 zapatua: 19:00 / 22:15
15 domeka: 19:00
16 astelehena: 21:30



'Elle'

(Ongarri zinekluba)

19 eguena: 21:30



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **28€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek **22€**)
Ipar Euskal Herria eta Europa: **41€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **31€**)
Europatik kanpo: **53€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **42€**)

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus



II. URTEURRENA

Lola Gil Cengotita

2015eko urtarrilaren 10ean hil zen, 97 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da gaur, barixakua, urtarrilak 13,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.





Eire Vila



Mikel Olaizola



Hezur bat zoratu zitzaidan 8-9 urterekin: ezkeraldeko saihestetan azkena tontor bihurtu zen, mutur bat abdomenean, ordura arteko mami samurrean. Bular azpiko protuberantzia hark esternoari egin zion tira eta azala hezurri itsatsi, ahurtasun bat irekiz gortuzaren erdigunean. Edo alderantziz izan zen akaso, xifoidearen hondoratzeak utzi zuen aske ertz hura. Auskalo.

Kontua da lagunen begietan izan nuela lehenengoz haren berri; haien harridura-keinu eta marmarretan. Handik zer irtengo zain ziren denak, hezur hark noiz moztuko okela, izoztutako ibaietan izokinak kolpeka nola dabiltzan agoniaz begira jarduten dutenak bezala. Baina satorrik gabeko satorzulo geratu nintzen, izan nahi eta izatera iritsi ez zen zerbait ezezagunaren eramale. Nire saihest hartatik ez zen sortu

Ebarik, ez eta beste Mikelik ere.

Aurkako norantzan hasitako atal haren esnatzeak oker, punta zorrotz, arantzatsu egin zuen nire simetria falta. Kamiseta eta jertseek forma mudatzen zuten, arrarotasun hartan jantzi ahala. Besarkada bakoitzean besteak adarkatzeko beldurak hartu ninduen. Urteetan zehar itzuli zen amets bera ere: hezur errebelde hura luzatu eta luzatu eta ni kiribilduz, aldakan kateatua geratzen zitzaidan, makurtuta bizitzera behartzeraino, nire baitan minez.

Edozertara ohitzen da bat ordea. Enarek habiak egiten dituzte lotsaren itzalpean, erdiko hutsune haren bueltan; hezetasuna elikagai eginez buruz behera lekutzen dira belarrak zintzilik. Buelta eta buelta eta buelta denborak. Eta oharkabe, neguko eguzkitan dantzan jartzen zaizu eskeletoa. Orduan aski da kontaktu bat, ukitze labur bat puntak punten aurka, hezur denak kamusteko. Baita zoroena ere.

“Oharkabe, neguko eguzkitan dantzan jartzen zaizu eskeletoa. Orduan aski da kontaktu bat, ukitze bat, puntak punten aurka, hezur denak kamusteko”



Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5an hil zen, 57 urte zituela.

***Momentu ugari pasa ditugu
urteetan elkarrekin
batzutan barre, bestetan negar
ahaleginak kontaezin.
Mauxi, izan zara lagun on, fidel
parrandetan aspertezin,
eskuzabala ta kementsua,
beti irribarrearekin.
Zurekin bizitako guztia
gordeko dugu gurekin.***

Erre Arte koadrila

Doinua: Itsasoari begira



Jose Mari Churruca Iriondo

2017 urtarrilaren 8an hil da, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Aittita maittia
zenbat momentu on,
zenbat barre,
zenbat bizipen zure alboan...
Danak geldittuko dira gurekin.***

Etxekoak



Ladislao Irureta Gabilondo

2016ko abenduaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zu joan zara, baina
zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko
izan dituzun
ilusioa eta bizipoza.***





IZAN AL ZARA INOIZ IMHn? ZATOZ ETA EZAGUTU GAITZAZU!
INGENIARITZA DUALEKO UNIBERTSITATE GRADUA **GOI ETA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Informazio saioa: URTARRILAK 18, 16:00 etan
Ingeniaritza GRADU DUALA + Enpresara bisita

www.imh.eus / Bertaratzea baieztatu 943748264 telefonoan (Itziar Egiguren)

Hurrengo saioak:

Otsailak 4 - 11:00 Ingeniaritza Gradu Duala
 Martxoak 11 - 11:00 Ingeniaritza Gradu Duala
 Apirilak 1 - 11:00 Ingeniaritza Gradu Duala + Heziketa Zikloak
 Maiatzak 20 - 11:00 Ingeniaritza Gradu Duala + Heziketa Zikloak
 Maiatzak 24 - 18:00 Heziketa Zikloak
 Ekainak 14 - 17:00 Ingeniaritza Gradu Duala

Harremanetarako www.imh.eus:

Ingeniaritza Gradu Duala: Itziar Egiguren 943748264 / Heziketa Zikloak: Amaia Ansola 943748265

LED LG 43UH610V

A+ - UHD 4K - HDR PRO
 SMART TV - 1200 HZ. PMI



429€

DOLCE GUSTO PICCOLO

15 BAR
 DOLCE GUSTO KAPSULAK
 (20€ko balioa duten 4 kafe-pack operi)



49€

BOSCH WTG8626EE lehorgailua

7KG
 B
 Kondentsazioa
 Alergien kontrako programak



475€

Dendako prezioak

BOSCH COMBI KGN39XI34 HOZKAILUA

355 LITRO
 Ez da izzotzen
 Hatz-marka kontrakoa - INOX
 Led argiztapena
 201x60x65 zm
 A++



749€

ASTE BEREZIA!

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es